



ORIOKOU DALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2019ko otsailaren 11, astelehena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparraguirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkaria

Jon Carrera Jauregui

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2019ko aurrekontu propioa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2019ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.



- 3.- Onartzea, egoki bada, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak, honako kontzesio administratiboaren kontratazioa arautzeko: Oriko Antilla hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko kontratua.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2019KO AURREKONTU PROPIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2019ko aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal-arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Oriko Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal-ordenantza.

Udalbatzarrak jasotzen du, baita ere, 2019-2020 inbertsio-planaren berri. Inbertsio-plan horretan 4.654.233,05 euroko gastua aurreikusten da, honela banatuta:

- 2019ko aurrekontua: 1.140.118 €.
- Dirulaguntzen aurreikuspena: 824.994 €
- 2018ko aurrekontutik txertatutakoa: 1.244.364 €
- Diruzaintzako gerakinaren erabileraren aurreikuspena: 1.355.769,05 €

Komeni da nabarmentzea Diruzaintzako gerakinaren erabilera, hasierako aurreikuspenean, 1.725.261,05 eurokoa dela; baina erabilera erreala, azken batean, 1.355.774,05 eurokoa izango da, aldez aurretik aurrekontuaren doiketa bat egin behar delako, 369.487 euroka.

Udalbatzarrak konpromiso politiko bat hartzeko proposamenaren berri ere jasotzen du. Proposamen horren arabera, udal-jabegoko eta ondare-izaerako bi partzela besterenduko dira Oriko AIU3 Hondartzan, 36 etxebizitza libre sustatzeko; dagokion lehiaketa publikoa apirilerako egin behar da, lortutako baliabide ekonomikoak Diruzaintzako gerakinean txertatzeko eta, horrela, 2019-2020 inbertsio-plana finantzatzeko erabili ahal izateko.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du EAJ talde politikoak proposatzen duela udal-jabegoko bi partzela horiek besterentzetik lortutako baliabide ekonomikoak, besteak beste, honako inbertsioak finantzatzeko erabiltzea, lehentasunez:



- Bidegorri bat eraikitzeke Bikamiotako errotondatik A-8 autopistaren zubi azpiraino, Zaragueta eskolako ordezkariak egindako eskaerari erantzunez.
- Zaragueta eskolako pilotalekua egokitzeko.
- Zenbait inbertsio egiteko Abaromendi inguruan, dauden eskariei erantzuteko.

Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du Oriko AIU3 Hondartzan udal-jabegoko eta ondare-izaerako bi partzela besterendu eta 36 etxebizitza libre sustatzeko proposamena EH Bildu talde politikoak egin zuela eta Orain eta PSE-EE taldeek babestu zutela; bi partzela horien besterentzetik lortutako baliabide ekonomikoak Diruzaintzako gerakinean txertatuko dira eta kasuz kasu erabakiko da, dagokion garaian, zein inbertsio finantzatzeko erabili.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE) bat egiten du Emeterio Iribarrek esandakoarekin.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2019ko urtarrilaren 11, 18 eta 25ean eta otsailaren 1ean emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Oriko Udalaren 2019ko Aurrekontu Orokorriari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

Sarrerren egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.455.482
2	Zeharkako zergak	50.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.551.614
4	Transferentzia arruntak	4.362.519
5	Ondarezko diru-sarrerak	137.285
6	Inbertsio errealen besterentzea	0
7	Kapital transferentziak	517.999
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		8.074.899



Gastuen egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	3.157.777
2	Gastuak ondasun eta zerbitzuetan	2.408.305
3	Finantzaketa gastuak	0
4	Transferentzia arruntak	1.223.194
5	Kreditu globala	78.400
6	Inbertsio errealak	1.150.933
7	Kapital transferentziak	56.290
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		8.074.899

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal-araua, 2019. urteari dagokiona, Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- HARTZEA konpromiso politiko bat, Orioko AIU3 Hondartzan udal-jabegoko eta ondare-izaerako bi partzela besterentzeko, 36 etxebizitza libre sustatzeko; egin beharreko lehiaketa publikoa apirilerako jarri behar da abian, beranduenez.

4.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2019ko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; arau hauek erregulatuko dute informazio publikoa:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailletzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.



d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Aizpea Ubegun zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du Udalaren 2019ko aurrekontuaren onarpenari baiezko botoa eman diotela, 2017ko eta 2018ko aurrekontuei eman zieten bezalaxe, eta azaltzen du, baita ere, zein diren Udalaren 2019ko aurrekontu-proiektuari bere talde politikoak aurkeztu dizkion zuzenketa partzialak:

- Gizarte Ongizate eta Berdintasun Politikako Departamenturako administrari-lanpostu bat sortzea (PSE-EE talde politikoak babestutako zuzenketa).
- Txu-txu trenaren gidarien ordainsariak handitzea.
- 12.000 euroko aurrekontu-partida bat sortzea, eskualdeko komunikabide-proiektu berri bat martxan jartzeko inbertsioak finantzatzeko.
- 10.000 eurotan gutxitzea kiroleko ezohiko dirulaguntzetarako aurrekontu-partida, eta diru hori behar hauek estaltzeko erabiltzea:
 - 5.000 euro, udal obra-brigadarentzat aldamio bat erosteko eta traktorea eta garabia txukuntzeko (Orain talde politikoak babestutako zuzenketa).
 - 2.000 euro, Salatxo aretoko sarreran argiak eta errotulua jartzeko (Orain talde politikoak babestutako zuzenketa).
 - 1.000 euro, ingurumeneko jardueratarako.
 - 2.000 euro, hondartzako boleiboleko instalazioa egokitzeko Antilla hondartzan (Orain talde politikoak aurkeztutako zuzenketa).
- 20.000 eurotan gutxitzea haur-parkeetako inbertsiotarako aurrekontu-partida, 6 eurotan utziz, eta diru hori Orioko Arraunketa Elkarteko pantalana konpontzeko erabiltzea (Orain talde politikoak babestutako zuzenketa).



Aizpea Ubegun zinegotziak, bukatzeko, esaten du pozgarria dela Udalaren 2019ko aurrekontua otsailean onartu izana.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du 2018ko udal-aurrekontua EAJren botoekin bakarrik onartu zela; EH Bildu eta PSE-EE talde politikoek abstentzio-botoa eman zutela eta Orain talde politikoak, kontrakoa.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, Orain taldearen izenean, eta honako arrazoiak ematen ditu, bere taldearen aldeko botoa azaltzeko:

- Bere talde politikoak babestu duen zuzenketa partzialari esker 80.000 eurotan handitu da diru-sarreraren aurrekontua.
- Bere talde politikoak babestu dituen zuzenketa partzialei esker aurrekontu-partidak ireki dira, 6na euroekin, hiru jarduera hauek finantzatzeko: autokarabana-gune bat egokitzeko, parke estali bat egiteko eta futbol-zelaiko belar artifiziala berritzeko.
- Bere talde politikoak eta EH Bildu eta PSE-EE talde politikoek babestu duten zuzenketa partzialari esker konpromiso politikoa hartu du Udalak, Oriko AIU3 Hondartzan udal-jabegoko eta ondare-izaerako bi partzela besterentzeko, 36 etxebizitza libre sustatzeko; egin beharreko lehiaketa publikoa apirilerako jarri behar da abian, beranduenez. Orain taldearen ustez, besterentze horrek 2.500.000 eta 3.000.000 euroren arteko diru-sarrera ekarriko dio Oriko Udalaren diru-kutxari.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak, bukatzeko, zorionak ematen dizkie udalbatzarra osatzen duten talde politiko guztiei, 2019ko udal-aurrekontua aho batez onartu dutelako.

Ondoren, Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EEren izenean, eta adierazten du, bere ustez, gehiengoak ez direla inoiz onak. Bestalde, azaltzen du zein diren Udalaren 2019ko aurrekontu-proiektuari aurkeztu dizkieten zuzenketa partzialak:

- 9.000 eurotan gutxitzea komun publikoetarako aurrekontu-partida.
- 9.000 euroko aurrekontu-partida bat sortzea, ibilgailu bat erosteko kultur etxeko atezainak erabiltzeko.
- 80.000 eurotan gutxitzea bidegorrietarako aurrekontu-partida.
- 67.080 euroekin osatzea Aita Lertxundi kaleko saneamendu eta argiztapenerako aurrekontu-partida.



- 12.920 euroko aurrekontu-partida bat sortzea, haurtzaindegiko teilatu-hegala handitzeko eta zorrotenak konpontzeko.
- 55.000 eurotan gutxitzea parke estalirako aurrekontu-partida.
- 25.000 euroko aurrekontu-partida berri bat sortzea, udal-liburutegia berritzeko lanen bigarren faserako.
- 20.000 euroko aurrekontu-partida berri bat sortzea, Zaragueta eskolako argiztapena hobetzeko eta zorroten batzuk konpontzeko.
- 10.000 euroko aurrekontu-partida berri bat sortzea, kultur etxeko jarduerak sustatzeko.
- 6 euroko aurrekontu-partida berri bat sortzea, autokarabana-gune bat sortzeko. Partida hori Diruzaintzaren gerakinaren kargura finantzatuko da.
- 6 euroko aurrekontu-partida berri bat sortzea, Anibarko Portuko 30 m²-ko udal-lokala egokitzeko Garmendiazpi auzo-elkartearentzat. Partida hori Diruzaintzaren gerakinaren kargura finantzatuko da.
- 5.000 euroko aurrekontu-partida berri bat sortzea, Azurza etxeko apartamentu tutelatuak egokitzeko (zurezko dutexak, telebista...); eta 3.000 euroko aurrekontu-partida bat sortzea, Eguneke Zentroan hobekuntzak egiteko (kanpoko patioan aulkiak eta zintzilikako jardinerak jartzea).

Ana Priede zinegotziak, bukatzeko, poza agertzen du Gizarte Ongizate eta Berdintasun Politikako Departamenturako administrari-lanpostu bat sortzea erabaki delako.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du gogo onez hartzen duela herrian kulturaren alde egiten den guztia eta nabarmendu nahi duela, batetik, 6.000 euroko aurrekontu-partida sortu dela kultur jarduerak sustatzeko eta, bestetik, festetarako partida handitu egin dela.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak faltan bilatzen duela garai bateko kultur mahaia eta martxan jarri beharko litzatekeela berriro.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2019KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2019ko otsailaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Oriko Udalaren 2019ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

2.- JENDAURREAN JARTZEA Oriko Udalaren 2019ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda; arau hauek erregulatuko dute informazio publikoa:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, Oriko Udalaren 2019ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, behin betikoz onartuta dagoenean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK, HONAKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEKO: ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 3.



ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATU ETA BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA-ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2019ko otsailaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak, honako kontzesio administratiboaren kontratazioa arautzeko: Orioko Antilla hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko kontratua. Baldintza-orriaren laburpena honako hau da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

a) **Erakundea:** Orioko Udala.

b) **Espedientea tramitatzen duen bulegoa:** Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren xedea.

a) **Kontratuaren xedea:** Baldintza-orri honen xedea honako hau da: arautzea Orioko Antilla Hondartzako 3. zenbakidun eraikinaren okupazioaren kontzesio administratiboaren kontratazio-baldintzak, bertan Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko.

b) **Kontratuaren iraupena:** Kontratazio honen xedearen iraupenaren epea, guztira, hamar urtekoa izango da, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

a) **Tramitazioa:** Ohikoa.

b) **Prozedura:** Irekia.

c) **Era:** Lehiaketa.

4.- Gutxieneko kanona.

Urteko gutxieneko kanona 22.242 eurokoa izango da (BEZik gabe). Lizitatzailleek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

5.- Bermeak.



ORIOKUDALA



Behin betikoa: 25.000 €.

6.- Iragarki-gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Baldintza-orria www.orio.eus webgunean ikusi daiteke, Kontratistaren Profilean.

8.- Proposamenak aurkeztea.

a) Epea: Hogeita hamar egun natural, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.

c) Tokia: Udaletxeko Idazkaritza-Kontu-hartzailatza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.

d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,